

Donostia Hiria piano lehiaketaren aurkezpena.

## Donostia Hiria piano lehiaketan 134 lehiakide ariko dira

Gabriel Erkoreka eta Felix Ibarrendoren lanak emango dituzte goi mailan ariko diren lehiakideek

**Eredakzioa** Donostia

Donostia Hiria piano lehiaketan 134 pianistak parte hartuko dute aurten, martxoaren 8, 9 eta 10ean: horietako 40 Oinarrizko Maila 1 kategorian lehiatuko dira; 23, Oinarrizko Maila 2n; 26, Erdiko Maila 1en; 11, Erdiko Maila 2n; 5, Erdiko Maila 3n; 14, Goi Maila 1en; eta 14, Goi Maila 2n. Parte hartzaileen artean Euskal Herria, Malaysia, Suitza, Estonia, Portugal, Errusia, Frantzia, Espainia, Alemania, Brasil, Txina, Italia eta Poloniako pianistak daude lehiakideen artean.

Oinarrizko mailan, Catherine Leouf (Balzac, Frantzia), Flora Gomez Ortega (Balmaseda, Bizkaia) eta Xavier Sukia (Donostia) izango dira epaile. Erdiko mailan, Miguel Borges Coelho (Oporto, Portugal), Fernando Molina (Madril) eta Jimmy Lim (Madril). Goi mailan, Jean-Leon Cohen (Frantzia), Josep Colom (Bartzelona) eta Miguel Ituarte (Madril).

Garaikurrak amaierako kontzertuan emango zaizkie irabazleei, martxoaren 10ean. Saioa 10:30ean hasiko da, Viktoria Eugenia antzokian, eta sarituetako batzuek joko dute ekitaldian. Aurten, lehen aldiz, Euskal Herriko musikagile baten lan bat jatzeko aukera emango zaie maila eta azpimaila guztietako lehiakideei. Goi mailetan, Gabriel Erkoreka eta Felix Ibarrendoren lanak interpretatuko dituzte, eta biak izango dira amaierako ekitaldian.

## → Laburrak

### Emeli Sandek bi sari irabazi ditu Brit sarietan

**MUSIKA** Emeli Sandek bi sari irabazi zituen herenegun gauean Londresen banatutako Brit sarietan. Batetik, urteko disko onenarena, *Out Version of Events* lanarengatik, eta bestetik, emakumezko abeslari onenarena.

### Cesar zinema sariak banatuko dituzte gaur

**ZINEMA** Frantziako Zinema Akademiak gaur banatuko ditu Cesarrak, zinema munduko sariak. Michael Hanekeren *Amour*, Noemie Lvovskyren *Carmille Redouble*, Benoit Jacquoten *Les adieux à la reine*, Jacques Audiarden *De rouille et d'os* eta Leos Caraxen *Holy Motors* dira izendapen gehien lortu dituzten filmak: Antoine de Caunes umoristak gidatuko du sariak banatzeko ekitaldia.

# Eusebio Osa hil zela 20 urte

## Iritzia

Joxe Azurmendi, Miel A. Elustondo, Pako Sudupe

Zer interes du gaur Eusebio Osa? Gure memoria da. Beste gauza askoren artean, kritika soziopolitiko eta kulturala egin du. Begira *Egunkaria*-n plazaratutako azken artikuluan zer zioen:

«Orain ez da aski ETArekin ekin-tzak gaitzatea, baiekarekin batera elkarrizketaren beharra aipatzea nahiko da 'mezprezagari' bihurtzeko. Hori da R. Jauregi eta Agiriano sozialistek eta Atutxa jeltzaleak uste dutena eta diotena Elkarriz mugimendua erabazteko. ETArekin ekin-tzak gaitzesteaz gain, beren politika eta itunak eta tratuak onetsi behar ditugu gure eritziak eta hitzak mezprezagari gerta ez daitezkeen. Aski agerian zegoen lehen ere zein kolektakoa zen nahi zuten bakea, ez elkarrizketaren ondorio, boterearen, agintearen fruitu baizik. Elkarrizketaren sorrerak eta jarraierak eragin dituen erreakzio basatiak, zakarrek, jauntxo jeltzale eta sozialista horien erantzunak zaur amorratu zaizkien. Gari-utzi dute Itunekoek ez dutela bakerik nahi, alde batetik bere burua ukatzen duenaren bakea eta, bestetik, pax hispana besterik ez dutela nahi erakutsi digute argi eta garbi. Politikoko asko ikasi beharko lukete Elkarriz-gandik (.). Baina gure politikako jauntxo tratalari horiek elkarrizketaren eta autokritikaren bideak urratzeko gertu egon daitezkeen erreziklaje sakon bat edo, bestela, mirari haundiren bat behar dute. Horregatik jarraituko dugu luzaroan egiazko bake kanpainen entzun gabe. Azken finean kultura kontua baita lehenago politika baino. Eta horretan bilakaerak geldo xamarra izan ohi dira» (*Test bikaina*, 1993-02-02).


70eko hamarkadatik aurrera, AEBek gidaturiko kapitalismoaren aurka idatzi zuen beti eta sozialismoaren alde—munduan zehar irabazi zuten iraultzak nahiago zituen, Frantziako 68ko maiatza bezalako mugimendu frakasatuak baino—, boterea gehiengoaren herril langilearen eskutuan izatearen alde, gutxiengoa diren kapitalistek kendurik.

1972an, lau artikuluko plazaratu zituen *Anaitasuna* aldizkarian, *Sakone* ezizenpean. Sistema kapitalista eta ebanjelioa elkarren aurkakotzat jotzen zituen; sozialismo marxista askatzailea askoz hobeki egokitzen zitzaion eban-

jelioari, dirua gizakiaren premien gainetik jartzen duen kapitalismoa baino.

Oñatitik Gasteizera igaro zen 1967an, eta han ikasi zuen Arabako Eliza ofiziala apaiz zakar kontserbadoreen gidaritzapean zela. Olabide ikastolan hiru bat urte egin zituen irakasten, eta 1971n, kanporatu zuten. Kalera-tze horretaz, honela utzi zuen idatzia:

«Inoiz aurpegirik eman nahi izan ez duten jaun batzuek zabalduko fundamenterik gabeko susmo hutsetan oinarriturik, Moral tradizionalaren eta Derezkoaren oinarria, hots, kontrako-rik demostratzen ez den bitartean edozein pertsona kulpagabetzat hartu behar dela, prinzipio nagusi hori zapalduz, ikastolaren eginkizun nagusia euskera ikastea, erlijioa ematea, nota onak ateratzea eta bide horretatik prestijioa hartzea dela agerturik, benetako heziketa zertan datzan aztertu gabe eta azertu nahi izan gabe, Andereñoak ezertarako konsultatu gabe eta haien iritziak guztiz bazterturik, guraso gehienak batera informatu gabe, guraso gehienak zein iritzi-koak diren jakin gabe, elektorik gabe berez sorturiko eta, beraz,



Eusebio Osa (1936-1993). BIDEAGILEAK BILDUMA

representazio gabeko Junta batek, OSA Ikastolatik botatzea erabakitzen du».

Gorago esan dugu kapitalismoaren aurka idatzi zuela beti. AEBetan birritan izan zen: 1986an eta 1991n. Handik artikulatu sail bat bidali zuen *Egunkaria*-ra. Hona artikuluko haietako bat:

«Hilabete t' erdi pasa eta, Renoko kaleetan Norman Schwartzkopf generalak egin digun bistatzen egunkarietako lehen orriak nola bete diren ikusi ondoren, Golkoko gerraren apologistez ase ase egin ondoren, autobusera sartu eta 'zure izena goian ikusi nahi baduzu...egin zaitte marine' egunero irakurri ondoren, buse-tik jetsi eta armadan sartzeko gonbitea pasatuz gazteengana hiru soldadu hurbiltzen ikusi ondoren, Unibertsitateko ikasle-er sindikatuan armadaren aldeko propaganda mahai gainean zabaldua begistatu ondoren, telebistan igande goizetan himno eta kantu militarrez osaturiko kontzertuak entzun ondoren, Bostonen jaiotzen den *Z Magazine* hilabetearen zure mahai gainean uzten dizute eta, gainbegirada llabur bat ematea aski da, egurats militarizatua eta abanderatua amasaldi txiki bat hartu ahal izateko. Azkenean!

Hemengo kritika-lehorte izugarriaren erdian, EEBBko politika, kultura, gizarte eta ekonomia gaiez pentsamendu kritikoa agertzen duen eta etorkizun hobearren alde planteiatzen eta burutzen diren ekintzak bultzatu nahi dituen aldizkaria. Barnean, besteak beste, Noam Chomskyren (betikoak!) artikulua irakur dezakezu, EEBBak Golkokoan dituzten interesei buruz; eta honen alaba den Avi Chomskyk eta honen senar euskalduna den Jon Aske linguista (nola ez ba Chomskyren artean!) gazteak idatzitako Euskal Herriko egoera politikoiari buruz. Tanta goxo eta esperantzagarri bakan batzuk, kritikaren lehorte itzelaren eta militarismoaren loratze paregabearen erdian». (*Z Magazine*, 1991-09-01).

Euskara irakasle luzaroan; alfabetatze-lanean eta gainerakoetan, ikasleentzako zientziarioz defendatu du, kultura neutralizatu ez baita. Freireren zapalduen aldeko pedagogia bultzatu du eta iraultza sozialaren alde idatzi du.

Euskal idazle ona izan da; gauza zailak gutxi bezain erraz azaldu ditu. Hemen printza batzuk baino ezin aurkeztu. Heriotzaren hogeigarren urteurren hau, haren obraren ezagutzan sakontzeko eta zabaltzeko aprobetxatu nahi genuke, merezi duelakoan baikauda, gure memoria aberastalderara.

Euskal idazle ona izan da; gauza zailak gutxi bezain erraz azaldu ditu. Heriotzaren hogeigarren urteurren hau, haren obraren ezagutzan sakontzeko eta zabaltzeko aprobetxatu nahi genuke